

## **Irakasle-ikertzaileen eremuko negoziazio kolektiboa martxan jartzea eskatzen dugu!**

**LAB eta Steilas sindikatuok** behin eta berriz adierazi dugu lehentasuna ematen diegula negoziazioari eta konponbide kolektiboei. Hala ere, azken urteetan bide judiziala izan da nagusi langileen eskubideak defendatzeko orduan. Baina bide hori salbuespenekoa izan beharko litzateke, lan-baldintzak ez baitira epaitegietan erabaki behar. Horregatik, UPV/EHUko zuzendaritzari esaten diogu, ohizko kudeaketatik eratorritako jardueraz haratago, garaia iritsi dela azkenaldiko blokeoa gainditu eta aspalditik esku tartean ditugun gaiak mahai gainean jartzeko. Irakasle eta ikertzaileen eremuan **negoziatu beharreko gaiak** asko dira, ugariak baitira konpontzeko arazoak. Hona aurreikusten ditugun batzuk:

### **1.-Ikertzaileen lan-baldintzak:**

- Ikertzaile predoktoralen eta posdoktoralen lan-baldintzak: kontratu motak, iraupenak, kalte-ordainak, beka-zubia, ikertzaileen ibilbidea ikertzaile iraunkor bihurtu arte,...

### **2.-Erretiro partzialerako akordio berria:**

- 2013an sinatu zen erretiro partzialerako akordiotik kanpo dauden UPV/EHUko langileentzat, indarrean dagoen araudiak finkatzen dituen baldintzetara egokituta (IRI/AZP).

### **3.-UPV/EHUko arautegiak berrikusi:**

- Ordezko irakasleen kontratazioa kudeatzeko arautegia.
- Irakaskuntza esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegia.

### **4.- Soldatak (UPV/EHU - Eusko Jaurlaritza):**

- Eros-ahalmena errekuuperatzeko soldata igoera.
- 41/2008 Dekretua, UPV/EHUko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoa, ordezkotik partzialen soldaten proportzionaltasun eza zuzentzeko eta behin-behinekoen bosturtekoak ordaindu ahal izateko.
- Behin-behineko irakasle eta ikerlarientzako seiurtekoak.
- Europako sententzien aplikazioa: behin-behinekoen kalte-ordaina
- Itzarriri ekarpenak.
- Osagarri gehigarrien deialdien normalizazioa.

### **5.- Egonkortasuna:**

- Plaza jabegabeetan (bakanteetan) dauden ordezkotien konpromisoak arautzea.
- Europako sententzien aplikagarritasuna: Irakasle elkartuak mugagabe ez-finkotzat (*indefinido no fijo*) hartzeko beharra.

### **6.- Enplegu Publikoaren Eskaintza:**

- Eskainiko diren lanpostuak zehazteko irizpideak.
- Ikertzaile finkoen plazen eskaintza.

### **7.- Formakuntza:**

- PPP: indarrean dagoen planaren balorazioa.

- Ibilbide profesionalari loturiko formakuntza.

#### **8.- Sailen berrantolaketa:**

- Zentroen berrantolaketa kasuan sinatu zen antzeko akordioa, irakasleen eskubideak bermatzeko.

#### **9.- UPV/EHU berritu behar diren planak (IRI/AZP):**

- Plan Estrategikoa, Ikerkuntza Plana, Unibertsitate Plana, Euskara Plana, Berdintasun Plana.

#### **10.- Unibasq: osagarriak eta akreditazioak**

- Negoziatio mahaiaren osaketa Unibasq-Sindikatuak-UPV/EHU, ebaluazio irizpideak negoziatzeko.
- Akreditazioetan deialdi irekia urtean zehar.

Bestetik, arreta berezia jartzeko beharra ikusten dugu behin-behineko irakasle-ikertzaileen eta irakasle-ikertzaile partzialen egoeran. Gaiak asko dira, baina gonbitea luzatzen diegu gainerako sindikatuei guztion ekarpenekin zerrenda osa dezagun. **Unibertsitateari** dagokionez, ikasturtean zeharreko **negoziatio kolektiboan** ardatz izan daitezkeen akordio edota hitzarmenen inguruan **planifikazio bat** proposatzea eskatzen diogu.